


Biztanle bakoitzeko gizarte zerbitzuetan egindako gastua %14 igo zen 2009. urtean Euskal AEn

Euskal AEko gizarte-zerbitzuak: Eustaten datuen arabera Euskal AEn, 2009. urtean, 2.123 milioi euroko gastua egin zen gizarte zerbitzuetan, hau da, aurreko urtean baino %14,1 gehiago. EAEko BPGaren %3,3 izan zen gastua. Biztanle bakoitzeko 979 euroko gastua egin zen batez beste, aurreko urtean baino %13,7 gehiago, eta horietatik 734 euro funts publikoetakoak izan ziren.

Lurraldeka, Araban %6,5 igo zen gastua, Bizkaian %16,2 eta Gipuzkoan %14. Biztanleko, Araban eman zen gasturik handiena: biztanle bakoitzeko 1.049 euro. Bizkaian, aldiz, gastua 984 eurokoa izan zen eta Gipuzkoan 939 eurokoa.

Grafikoa: Biztanle bakoitzeko gastuaren bilakaera, gizarte-zerbitzuetan



Iturria: EUSTAT. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika

Herri administrazioek 1.591 milioi euroko ekarpena egin zuten (gastuaren %75), eta sektore pribatuak gainerako %25 eman zuen. Gastatu ziren bost eurotatik bat erabiltzaileen kuoten eta bestelako salmenten bidez finantzatu zen. Guztirako horretatik, gainera, egoitzetan eta eguneko asistentzia zentroetan dauden adinekoek 213,5 milioi euroko ekarpena egin zuten, hau da, zentro horietako gastu arruntaren %50.

Sektore honetan %4,3 emakume landuneri eman zitzaien zuzenean lana

2009. urtean 1.207 lanpostu berri sortu ziren gizarte zerbitzuetan; 25.890 pertsonak lortu zuten zuzenean lana (okupazioaren %2,76), %70 emakumeak (emakume landunen %4,3). Baina ez dira kopuru horretan sartu azpikontrataturako pertsonak, etxez etxeko laguntza ematen dutenak eta zuzeneko arreta ematen dutenak; hauen guztien lanorduek lanaldi osoan 6.000 enplegutik gora ekarri zituzten. 2009. urtean 20.417 pertsonak lan egin zuten gizarte zerbitzuetan boluntario moduan, eskuzabaltasunez; guztira lanaldi osoan 1.840 pertsona gehiago izan zen.

1. taula: Aldagai nagusien bilakaera

	2008	2009	Δ% 09/08
Gastua (mila euro)	1.861.067	2.122.914	14,1
- Gastu arruntak	1.342.916	1.427.917	6,3
- Familietarako transferentziak	425.215	576.342	35,5
- Kapital-gastuak	92.936	118.654	27,7
Gastua/Biztanleko (euro)	860,4	978,4	13,7
Gastua/BPG (%)	2,72	3,29	-
Finantzaketa			
- Finantzaketa publikoa	1.346.932	1.591.367	18,1
- Finantzaketa pribatua	514.135	531.547	3,4
Giza baliabideak			
Langileak guztira	43.641	46.307	6,1
- Bertako langileak	24.683	25.890	4,9
- Borondatezkoak	18.958	20.417	7,7
Material-baliabideak			
- Izakunde-kop.	1.370	1.401	2,3
- Zentro-kop.	2.944	3.088	4,9
- Egoitza-kop.	994	1.082	8,9
- Egoitza-plazak	24.081	26.107	8,4

Iturria: EUSTAT. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika

Gizarte zerbitzu mota ezberdinen artean, oro har biztanle guztiei eta adinekoei emandako zerbitzuetara bideratu zen baliabide gehien; gastuaren %70 hartu zuten bi esparru horiek.

Biztanle guztientzako baliabideen artean, kopuru eta bilakaera aldetik, familiei egindako transferentziak nabarmendu behar dira eta, horien artean, hauek: Diru-Sarreraren Bermerako Errenta (DSBE, PAGAMI izeneko foru osagarria duena), 265 milioi euroekin (+%31) eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak (GLL), 62 milioi euroekin (+%37).

Pobretasunaren kontrako planari lotuta dauden bi prestazio hauek ia osorik finantzatzen ditu autonomia-erkidegoko administrazioak, eta foru eta udal administrazioekin batera kudeatzen dira. 2009. urtean, guztira, 151 euroko gastua egin zen biztanle bakoitzeko Euskal AEn. Bizkaian egin zen gasturik handiena, 202 euro biztanle bakoitzeko, beste bi lurraldeetan baino kopuru askoz handiagoarekin; Araban 135 euroko gastua egin zen eta Gipuzkoan 74 eurokoa.

2009. urtean, adinekoei arreta emateko, egoitzetan 19.533 plaza izan ziren; beraz, 65 urteko eta hortik gorako adineko 100 pertsonatik 4,7k plaza izan zuten. Herri administrazioak plaza horien %35 eskaini zuen zentro publikoetan eta antzeko ehunekoa (%30) itundu zuen zentro pribatuekin.

Adinekoentzako eguneko asistentzia zentroetan 3.884 plaza eskaini ziren, 2008. urtean baino %5 gehiago. Herri administrazioak zuzenean edo sare pribatuarekin hitzarmen eginez eskaini zuen plazen %83.

2. taula: gastuaren bilakaera eta banaketa biztanleria motaren arabera

	2008	2009	Δ% 09/08
Gastua (mila euro uneko)	1.861.067	2.122.914	14,1
Biztanleria oro har	715.722	856.849	19,7
- Familietarako transferentziak	421.093	571.266	35,7
Haur-Gazteak	79.189	91.217	15,2
- Egoitzak	58.869	69.192	17,5
Zaharrak	547.685	632.804	15,5
- Egoitzak	456.165	507.112	11,2
Ezgaituak	414.423	415.773	0,3
- Egoitzak	80.442	90.327	12,3
- Lanbide-zentroak eta EZB (1)	258.330	237.014	-8,3
Emakumeak	15.625	16.518	5,7
Zokoratuak	88.423	109.752	24,1

(1) Enplegu-zentro bereziak

Iturria: EUSTAT. Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistika

Argibide gehiago:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helb. elek.: eustat@eustat.es

Harremanetan jartzeko pertsona: Matxalen Plagaro

Tel.: +34-945-01 75 99 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistikari buruzko prentsa-ohar gehiago

Euskal AEko Gizarte-zerbitzuen eta gizarte-ekintzaren estatistikaren datu-bankua